

**OÑATIKO UDALA ETA GURE BAZTERRAK KULTUR
ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA**

Oñatin, sinadura digitalean aurkezturiko datan, bi alde hauek **BATU** dira:

Batetik, IZARO ELORZA ARREGUI andrea, Oñatiko Udaleko alkatea, Udal korporazioaren izenean (NAN: **3963**G / Helbide Soziala: Oñatiko Foruen Enparantza1).

Bestetik, ARANTZAZU SAGARZAZU SACRISTAIN anderea, GURE BAZTERRAK (IFK G02818313) izenean aritzeko gaitasuna duena (NAN: **7443**H).

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko nahikoa gaitasun aitortu diote elkarri eta honako hau

ADIERAZTEN DUTE :

I.- Eskumenak. Oñatiko Udalak hainbat eskumen ditu kultura-jarduera eta instalazioen arloan, indarrean dagoen legeriaren arabera, bereziki Toki-araudiaren oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikuluan eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17. artikuluko 20 atalean xedatutakoaren arabera.

II. Nortasun Juridikoa. Bi aldeek aitortzen dute **Gure Bazterrak Elkarte**a zuzenbide pribatuko elkarte delako, Eusko Legebiltzarrak onartutako Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen ezarritakoaren arabera sortua, irabazteko xederik gabekoa. Era berean, aitortzen dute Elkarteak ez duela inolako mendekotasunik Oñatiko Udaleko aginte organoekin, ezta lan harremanik ere.

III. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003ko Lege Orokorra garatzeko eta 887/2006 Errege Dekretuaren 55. Artikuluak xedatutakoaren arabera; dirulaguntzak emateko ohiko prozedura lehiaketa bidez ematea izango da. Hala ere, Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, bere 22. artikuluan ezartzen du (22.2.c atala), salbuespen izaerarekin, zuzenean eman ahal izango direla diru-laguntzak beti ere honako arrazoiak egiaztatzen direnean: **interes publikoa, soziala**, ekonomikoa edo humanitarioa izatea edo deialdi publikoa zailtzen duten bestelako arrazoiak.

IV. Interes publikoa, soziala edo deialdi publikoa zailtzen duten bestelakoak (Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra. 22.2. C atala):

Oñatiko etnografian, historian, euskaran, kulturaren zein ondarean interesa duen Elkarteak da Gure Bazterrak. Bere xede nagusia , Oñatiko kultur ondare etnografikoa ezagutzea eta ezagutaraztea da. Herriko eremu ezberdinetan balizko objektuak bilatzea, katalogatzea eta gizarteratzea.

Gure Bazterrak, izaera honetako elkarte eratu bakarra da Udalerrian.

VI. Kontzesioa, arautuko duen hitzarmen bidez egingo da.

Hau guztia kontuan izanda, eta alde bien onurarako izango denez, honako hitzarmen hau

HITZARTZEN DUTE:**LEHENA: Hitzarmenaren xedea.**

Hitzarmen honen xedea da:

Batetik, "Txondorran Bueltan" proiektua garatzeko, Gure Bazterrak Elkarteak eta Udalaren arteko lankidetzaren esparrua zehaztu eta araupetzea.

Bestetik, " proiektuaren garapenaren bidez herri mailako kulturaren ezagutza landu, elkarbanatu, hedatu, iraunarazi eta sustatzea. Helburu nagusi horren barruan toki berezia izanik ikazkintza eta ikazkinak, lanbide eta jardueraren osagarri gisa: iraganeko bizimodu batzuk gogora ekartzea, basoen ustiapenerako zein ikatzaren ekoizpenerako ezagutzak balioan jartzea, eguneroko egoeraz hausnartzea.

BIGARRENA: Laguntzaren zenbatekoa eta kontu-saila.

Hitzarmen honetan zehazten den dirulaguntza aurrekontu honetako partidatik emango da:

Dirulaguntza: zuzena eta ez-izenduna da.

Kreditua guztira: 7.000 euro (zazpi mila euro).

2023. urteko dirulaguntzaren gastua, guztira: (4000€)

Kontu-Saila: 1.080.481.338.00.08.2023 (5491) - Etnografia proiektuetarako dirulaguntzak-eta bere lotespen-maila.

2024ko konpromisu-kreditua: 3000 euro (hiru mila euro).

Diruz laguntzen den proiektua: Txondorren bueltan .

HIRUGARRENA: Hitzarmenaren indarraldia.

Hitzarmenak bi urteko (2023-2024) indarraldia izango du:

2023ko ekainetik 2024ko abendura bitarte.

Ikus proiektuarekin batera aurkezturiko kronograma.

LAUGARRENA: Dirulaguntza emateko prozesua.

Dirulaguntza **ordainketa bi zatitan** egingo da:

Lehen zatia: 2023. Urtean, akordioa onartzen den unean. Guztira: 4000 € (lau mila euro).

Bigarren zatia: 2024. Urtean, gainontzekoa. Guztira konpromisu-kreditua: 3000€ (hiru mila euro).

BOSGARRENA: Diruz lagunduko diren gastuak.

Dirulaguntza jaso dezakeen **jardueren kontzeptuak** honako hauek izan daitezke:

Proiektua gauzatzeko egingo diren irteerak (Goizuetako txondorrera, adibidez), dokumentazio lanak gauzatzeko ekintzak (bibliografia bildu, artxibo kontsultak,...), Pago-mozketa ikastaroak, hitzaldiak, pagadiak ulertu eta ezagutzeko irteerak, eta abar. Proiektuaren garapenarekin zerikusia dutenak, alegia. Beti ere, Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, 22.2.C atalean xedatzen denarekin bat etorri gero; hau da, onura publikoa edo interes soziala edo helburu publikoa duten jarduerak sustatzea edo bultzatzearekin zerikusia dutenak eta **diruz lagunduko den proiektuaren izaerarekin bat egiten dutenak.**

SEIGARRENA: Gastuen likidazioa.

Epe-muga: Beranduenez, 2024ko azaroak 30, ostirala.

Lana amaitzean, balorazio txostena eta likidazio ekonomikoa aurkeztu beharko dituzte.

Gure Bazterra Elkartek, zuri keta ekonomikoa era honetara justifikatuko du: gastu bakoitzaren *fakturaren kopia* eta dagokion ordainketa ziurtagiria aurkeztuz.

Gastuaren izaeragatik fakturarik ezin denean aurkeztu, salbuespen moduan onartuko dira aurkeztutako gastuak justifikatzen duten ziurtagiriak (adibidez, jaso izanaren agiriak elkartearen zigiluarekin, gastuaren data eta zenbatekoarekin eta hartzailearen izen-abizen, NAN zenbaki eta sinadurarekin). Administrazioen segurtasunerako eta elkarreragintasunerako nodoaren bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu dirulaguntzaren tramitazio administratiboa egin ahal izateko. Gure Bazterrak Elkarteari dagozkion honako zerbitzuak kontsultatuko ditu udalak:

Gipuzkoako Foru Aldundia: Zerga-betebeharren ordainketa egunean edukitzea kontsulta.

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia: GSDN-arekiko betebeharren ordainketa egunean edukitzearen kontsulta.

ZAZPIGARRENA: Elkartearen bete beharrak Udalarekiko.

BETEBEHARRAK :

1. Aurkeztutako " Txondorraren bueltan proiektua " betetzea (ikus eranskina).
2. Diruz lagunduko diren jarduera guztiak gauzatzeko beharrezko baimenak eskatzea.
3. Udalak zehazturiko moduan eta baldintzapean aprobetxamenduzko lur sailak, baliabideak, erabiltzea; izan daitezkeen galera edo kalteen erantzule izanik.
4. Oñatiko Udalaren dirulaguntza jaso dutela agerian utzi beharko dute, eskuorri, kartel edo gainontzeko euskarrietan.
5. Elkarte diru kontuen ikuskaritza edo auditoria egitera behartuta balego edo eta Udalak edo Administrazio batek hala eskatuko baliokete, derrigorrez jarri beharko ditu ikuskaritzaren esku (Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14.1 c) eta f) artikulua dioenaren arabera).

ZORTZIGARRENA: Udalaren eskumena.

Udalari dagozkio honako eskumenak:

Hitzarmena interpretatzea, hura betetzean sor daitezkeen zalantza kasuetan erabakitzea, interes publikoak eskatuta aldatzea, bertan behera uzteko akordioa hartzea eta horren ondorioz zehaztea, lege (Apirilaren 18ko, 781/1986 Erret Dekretu legegilearen 114.artikulua) ezarritako mugen baitan eta beti ere han jasotako baldintza eta ondorioei lotuta. Hartutako erabakiek administrazio bideari amaiera emango diote eta bat batean bihurtuko dira betearazle.

BEREDATZIGARRENA: Hitzarmenaren haustea.

Gure Bazterrak Elkarteak hitzarmenean jasotako baldintzak beteko ez balitu Udalak hitzarmena bertan behar utz lezake batzordeak, dirulaguntza itzuli beharko lukelarik Elkarte/Taldeak. Hitzarmenak izaera juridiko-administratiboa duenez, hitzarmen hau aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jarriko dira.

Hitzarmenaren klausulak banan-bana irakurri ondoren, bi aldeek erabateko adostasuna adierazten dute eta agiri hau oso-osorik onartu. Eta hala jasota gera dadin behar den lege ondorioetarako, adierazitako lekuan eta egunean sinatzen dute hitzarmen hau

Oñatin, sinadura digitalean aurkezturiko datan,

Oñatiko Udalaren izenean,
Izaro Elorza Arregi, Alkatea.

Elkartearen izenean,
Arantzazu Sagarzazu Sacristain



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **SINA3b4e40b5-1629-4932-9045-61c9ce0cb104**

Dokumentu elektronikoen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>